25 urte años

elkarkidetza®
pentsioak

# Kudeaketa txostena
# Informe de Gestión
2011

## Aurkezpen gutuna • Carta de presentación

2011ko ekitaldiak esanahi berezia izan du, Erakundearen 25. urteurrena bete da eta. Ezin izan dugu urteurren hori behar bezala ospatu, krisia gainditzeko ahaleginez betetako giro honen barruan.

Itxaropenez beteriko hasiera baten ondoren, Greziako arazoa konpontzeko irizpide irmorik eta finkorik ez zegoenez eta Europako ekonomiek beherako joera erakutsi zutenez, atzeraldiaren arazoa piztu egin zen berriro. Hori dela eta, merkatuek erorketak izan zituzten, Eurostoxx %15 jaitsi zen eta Ibex %13.

Egoera horren aurrean, gure inbertsio politika ondarearen dibertsifikazioa indartzera egon da bideraturik, arrisku aktiboetako inbertsioa saihestuz, gure ohiko kudeaketaren barruan, zuhurtasuna-errentagarritasuna binomioari eutsiz. Hala ere, abuztutik aurrera bizi izandako gertakarien ondorioz, Europaren egoeraren ondoriozko aurreikuspen negatiboak zirela eta, urte amaierako errentagarritasuna %-1,98koa izan zen. Emaitza hori, txarra bada ere, gure inguruko enplegu pentsio planen batez bestekoa baino hobea da, eta azken hiru urteetan %4ko errentagarritasunari eusteko aukera eman digu, inflazioa baino bi puntu gorago, gutxi gorabehera.

Finantza merkatuen krisialdiaren ondorio garrantzitsuenetakoa pentsio planen kaudimenari eusteko egon diren arazoak izan dira, Europako herrialde guztietan.

Elkarkidetzan, emaitzak aplikatu eta gero, %14,03ko estaldura tasari eutsi diogu, legez ezarritako gutxiengoa baino hamar puntu gorago. Hori dela eta, etorkizuna lasaitasunez ikusten dugu, baina beti ere gure aktiboen etengabeko zainketari eta kontrolari eutsiz, egungo eta etorkizuneko pentsio konpromisoak bermatu ahal izateko.

Oraindik ere, ondarea kudeatzeko zailtasunez beterik egongo den 2012. urtea gainditu beharko dugu, eta gure kasuan, zailtasun horiei, erakundeek eman ohi dituzten ekarpenak eteteko erabakia gehitu behar zaie. Hurrengo urteetan horrela jarraituz gero, neurriak hartu beharko lirateke prestazio sistemari eutsi ahal izateko.

Edonola ere, abagune hori gainditzeko prest gaude, izan ere, uste dugu Elkarkidetza osatzen dugun guztion borondate sendoa dugula, egitasmo hori laguntzen eta indartzen jarraitzeko.

El ejercicio 2011 ha tenido un significado especial, al cumplirse el 25 aniversario de la Entidad. Acontecimiento que no lo hemos podido celebrar en un entorno de superación de la crisis.

Tras un comienzo esperanzador, la falta de criterio firme y decidido para la solución del problema griego, junto con el paulatino deterioro de las economías europeas, reavivaron el problema de la recesión, lo que motivó una reacción de los mercados con caídas del 15% en el EuroStoxx y del 13% en el Ibex.

Ante esta situación, nuestra política de inversión ha estado encaminada a potenciar la diversificación del patrimonio evitando la inversión en activos de riesgo, dentro de nuestra habitual gestión, manteniendo el binomio prudencia-rentabilidad. Sin embargo, los acontecimientos vividos a partir del mes de agosto, con las negativas perspectivas de la situación europea, motivó que la rentabilidad a final de año fuese del -1,98%, mejor resultado, en cualquier caso, que la media de los planes de pensiones de empleo de nuestro entorno y que nos permite mantener una rentabilidad del 4%, cerca de dos puntos por encima de la inflación en los tres últimos años.

Una de las consecuencias más importantes derivadas de la crisis de los mercados financieros, es el manteniendo de la solvencia de los planes de pensiones, en todos los países europeos.

En Elkarkidetza mantenemos, después de la aplicación de resultados, una tasa de cobertura del 14,03%, diez puntos por encima del mínimo legal establecido, lo que nos permite ver el futuro con tranquilidad, pero manteniendo una permanente vigilancia y control de nuestros activos que aseguren nuestros compromisos de pensiones, actuales y futuras.

Todavía vamos a tener que superar un año 2012 lleno de dificultades para gestionar el patrimonio en nuestro caso, además agravado por la interrupción de las aportaciones de las instituciones, que de continuar en los próximos años, obligarían a tomar medidas para preservar el sistema de prestaciones.

En cualquier caso, estamos preparados para superar esta coyuntura con el convencimiento de la firme voluntad de todos los que componemos Elkarkidetza de seguir apoyando y potenciando este proyecto.



Jon Zabalia Lezamiz
BGAEren Presidentea Presidente E.P.S.V.



Amaia Aldasoro Iturbe
BGAEren Presidenteordea Vicepresidenta E.P.S.V.

# Egoeraren analisia • Análisis de coyuntura

2011. urtea nolabaiteko baikortasunez hasi genuen, baina hori erabateko ezkortasun bilakatu zen abuztua heltzerakoan. Udazkenaren amaieran doikuntza programa zorrotzek estutu egin gintuzten, eta Euroaren eta finantza sistemaren etorkizunerako benetako mehatxu diren arazoak konpontzeko krisialdiaren hasieratik hartutako neurri ahulek etsipena eragin ziguten. Sei hilabetetan, hazkunde moderatua izateko aurreikuspenetik, 2012an atzeraldian sartuko garela uste izatera igaro gara.

Finantza merkatuek aurrea hartu zuten, atzeraldiaren mehatxuarekin batera gobernu periferikoen bonoen krisialdia sakondu zen unetik. Ordura arte errespetatuak izan ziren Espainiaren eta Italiaren aurkako eraso gogorra ikusi genuen, eta haien arrisku prima igo zen, bi herrialde horiek merkatuetan zituzten finantzaketa gaitasuna zalantzan jarriz. Bi ekonomien dimentsioak benetako arriskua eragin zuen Euroaren biziraupenerako epe laburrean, eta horrek Belgika, Frantzia eta baita Alemania ere kutsatu zituen. Azaroan, nolabaiteko lasaitasunez ikusi genituen Papandreuren eta Berlusconiren dimisioak. Hilabete horretan bertan, hauteskundeen ondoren, Espainiako gobernua ere aldatu egin zen.

Abenduaren hasieran, Europak erreakzionatu egin zuen, Europar Batasunaren jarraipena bermatzeko, kideen artean diziplina fiskal handiagoa ezartzeko eta gerta zitekeen erreskate posible baterako funts erabilgarritasun handiagoari atea irekitzeko konpromisoan oinarriturik. Europako Banku Zentralak bere interes tipoak murriztu zituen, eta zuzenean inplikatu zen finantza sistemaren likidezia bermatzeko, oso kalteturik baitzegoen, aktibo batzuen kalitatearengatik, gobernuen bono karterengatik.

El optimismo moderado con el que iniciamos el año 2011 se transformó en un profundo pesimismo cuando llegó agosto. A finales de otoño nos encontramos agobiados por los fuertes programas de ajustes, y decepcionados por las tímidas medidas adoptadas para resolver los problemas que desde el inicio de la crisis representan una verdadera amenaza para la subsistencia del Euro y del sistema financiero. En seis meses hemos pasado de una previsión de crecimientos moderados a temer por la recesión en 2012.

Los mercados financieros tomaron la iniciativa a partir del momento en el que a la amenaza de recesión se unió el recrudecimiento de la crisis de los bonos de los gobiernos periféricos. Asistimos a un ataque virulento a España y a Italia que había sido respetada hasta el momento, sus primas de riesgo se ampliaron poniendo en duda la capacidad de financiación de ambos países en los mercados. La dimensión de las dos economías representó un riesgo real a corto plazo para la supervivencia del Euro, el efecto contagio contaminó a Bélgica, Francia e incluso a Alemania. En noviembre asistimos con cierto alivio a la dimisión de Papandreu y Berlusconi. En el mismo mes cambió el Gobierno de España tras las elecciones.

A principios de diciembre, Europa reaccionó para asegurar la continuidad de la Unión Europea a partir del compromiso de implantar una mayor disciplina fiscal entre los miembros y abrir una puerta a una mayor disponibilidad de fondos para un eventual rescate. El Banco Central Europeo redujo su tipo de interés y se implicó directamente en asegurar la liquidez del sistema financiero muy afectada por la calidad de algunos activos, por las carteras de Bonos gubernamentales.

## Inflazioa eta hazkunde ekonomikoa • Inflación y crecimiento económico

| | Inflazioa<br>Inflación | | Hazkunde ekonomikoa (BPG)<br>Crecimiento económico (PIB) | |
|---|---|---|---|---|
| **Gune/Herrialde Zona/País** | **2011** | **2012** | **2011** | **2012** |
| USA | 3,20% | 2,10% | 1,80% | 2,30% |
| JAPON | -0,20% | -0,30% | -0,80% | 1,70% |
| CHINA | 5,40% | 3,40% | 9,20% | 8,50% |
| ESPAÑA | 2,40% | 1,50% | 0,70% | -0,10% |

# Kudeaketa txostena • Informe de gestión

## Inbertsio zorroaren egitura

Urtarrilean ondarearen kudeaketari ekin genionean, Kudeaketa planean markaturiko ildoei jarraituz, 2011rako errenta aldakorreko inbertsioa zerbait handitzea aurreikusi genuen, errenta finkoaren kaltetan, ekitaldiaren hasieran errenta finkoa eta likidezia ondarearen %66 baino gehiago zirenean.

Esperientziak hala erakutsita, bagenekien, ondarearen dibertsifikazioa indartzeaz gain, ez genuela bono periferikorik erosi behar, gure iritziz arrisku aktiboak zirelako, eta ez genuela bankuetako bonoen ehunekoa handitu behar. Errenta aldakorrari dagokionez, helburua dibertsifikazioa indartzea zen, inbertsio likidoak eta haren azpian zeuden aktiboen benetako balioak bultzatutakoak, kasu batzuetan beren balioetatik oso behera baitzeuden. Era berean, aurrera jarraitu behar genuen tresna eta deribatu konplexuen erabilera saihesteko politikarekin.

## Estructura de la cartera de inversión

Cuando iniciamos en enero la gestión del patrimonio siguiendo las líneas marcadas en el plan de Gestión para 2011 habíamos previsto un aumento moderado de la inversión en renta variable en detrimento de la renta fija, teniendo presente que la renta fija y la liquidez superaban al inicio del ejercicio el 66% del patrimonio.

Sabíamos por experiencia que, además de potenciar la diversificación del patrimonio, debíamos evitar la compra de Bonos periféricos, considerados por nosotros activos de riesgo, y abstenernos de incrementar el porcentaje de Bonos Bancarios. En cuanto a la renta variable, el objetivo era potenciar la diversificación realizando inversiones liquidas y respaldadas por el valor real de sus activos subyacentes, en algunos casos muy infravalorados. Asimismo, queríamos continuar con nuestra política de evitar la utilización de instrumentos derivados complejos.

| | **Aurreikusia Previsto** | **Burutua Realizado** |
|---|---|---|
| Errenta finkoa Renta Fija | 51 +/- 2 | 55,72% |
| Likidezia Liquidez | 7 | 9,47% |
| Errenta aldakorra Renta Variable | 30 +/- 2 | 22,88% |
| Enpresa partaideak Empresas Participadas | 4 | 5,94% |
| Higiezinak Inmuebles | 5 | 3,65% |
| Aktibo espezializatuak Activos Especializados | 3 + 2 | 2,34% |

Aktibo banaketa
Distribución de activos



Errenta finkoa

Renta fija




Dibertsifikazio politika zuhurra martxan jartzeko asmoa trukaturik geratu zen urtearen bigarren erdialdean bizi izandako gertakizunen ondorioz. Europari buruzko gaia berriro azaleratzearen, hazkunderako itxaropen txarragoen eta politika alorreko zalantzen ondorioz, arrisku inbertsioak geratzera eta kalteak izan zitzaketen zenbait partaidetza saltzera eraman gintuzten, irabaziak finkatzeko xedez. Oso errentagarritasun erakargarriak zituzten banku depositauk izan ziren onuradunak, eta horrek partida horrek aurreikuspenekin alderatuz izan duen desbideratze positiboa azaltzen du. Depositauk ondareko aktibo errentagarriena izan ziren 2011n.

Errenta finkoak, orokorrean, jarrera positiboa izan du eta errenta aldakorra, herrialdeetan eta sektoreetan dibertsifikatu bada ere, eta kudeaturiko karteren portaera erlatiboa ona izan den arren, ezin izan da errenta aldakorreko merkatu guztiek, Estatubatuarrak izan ezik, izandako erorketa garrantzitsuetatik kanpo geratu. Errenta aldakorraren alorra da ekitaldiaren errentagarritasuna %-1,98koa izatearen zergatia. Inbertsio espezializatuek ere nahiko emaitza negatiboa eman dute, lehengaien bilakaeraren ondorioz, baina ondare osoan pisu txikia dutenez, ez dute zerikusi handirik izan azken errentagarritasunean.

Enpresetako partaidetza alorrak oso emaitza onargarria eskaini du, enpresa horietako asko inbertsio epealdian dagoela kontuan izanik. Gehien bat errentak kobratzetik datorrenez, printzipioz oso egonkorra den higiezinen errentagarritasuna murriztu egin da, abenduan egindako balorazioak direla eta.

La puesta en marcha de una política prudente de diversificación se vio truncada por los acontecimientos vividos en la segunda parte del año. El rebrote de la cuestión Europea, las peores perspectivas de crecimiento y la indefinición política aconsejaron paralizar algunas inversiones y vender puntualmente algunas participaciones que pudieran resentirse con el fin de consolidar beneficios. Los depósitos bancarios con rentabilidades muy atractivas resultaron beneficiados, lo que explica la desviación positiva de esta partida en relación con previsiones. Los depósitos han resultado el activo más rentable del patrimonio en 2011.

La renta fija en su conjunto se ha comportado de forma positiva y la renta variable, a pesar de la diversificación por países y sectores y del buen comportamiento relativo de las carteras gestionadas, no ha podido sustraerse a las importantes caídas de todos los mercados de renta variable con excepción del americano. El apartado de renta variable es la causa de que la rentabilidad del ejercicio se sitúe en -1,98%. Las inversiones especializadas también han arrojado un resultado ligeramente negativo por la evolución de las materias primas pero su reducido peso en el conjunto del patrimonio incide muy poco en la rentabilidad final.

El área de participaciones empresariales, teniendo en cuenta que en gran parte se encuentra en periodo de inversión, ha ofrecido un resultado muy aceptable. La rentabilidad de los inmuebles, que en principio es muy estable al proceder mayoritariamente del cobro de rentas, se ha visto minorada por las valoraciones realizadas en diciembre.

Errenta aldakorra

Renta variable



## Ekitaldiaren analisia

2011. urteko errentabilitatea bere hegazkortasunagatik ezaugarritu da, abuztuaz geroztiko beherakada bortitza izanik eta urte bukaeran suspertuz. Azken emaitza % -1,98koa izan da. Elkarkidetzan, errentagarritasuna gastu guztiak kendu ondoren adierazten dugu, hori baita bazkideen eskubide ekonomikoei zuzenean aplikatzen zaiena.

Elkarkidetzak bere fundazioaren hogeita bosgarren urteurrena bete du aurten. Gorabeherez eta lege oztopoz beteriko ibilbide luzea izan da, eta guztiak gainditu ahal izan ditugu, sistema solidarioa, jasangarria eta segurua finkatu arte.

Urteurren hori ospatzeko, joan den urrian Erakundeak jardunaldi teknikoa burutu zuen, eta bertan, nazio eta nazioarte mailako adituek, "Pentsioak eta gizarte aurreikuspen osagarriaren egitekoa" gaiaren inguruan eztabaidatu zuten. Topaketa horrek utzi zuen lehenbiziko ondorioa benetako printzipio aitorpena izan zen: ongizate egoerari eusteak lehentasuna izan behar du gizarte aurreikuspenaren bitartez hiru zutabeak kontutan hartuta: gizarte segurantza publikoa, gizarte aurreikuspen osagarria eta banakako pentsio planak. Pentsio duinak eustea bermatzea ezinbesteko mekanismoa da, gizarte aurreratu batek eskatzen duen ongizate egoera lortu ahal izateko.

2011ko martxoaren 31ko Batzar Nagusiak komenigarritzat jo zuen interes teknikoaren tipoa espero den errentagarritasunera egokitzea hura puntu erdi murriztuz (%4tik %3,5era) eta bestetik pentsioen hobekuntzarako definizio berri bat ezarri zuen eta Araudian jasota geratu da. Aldaketa horrek aurrerapena eragin zuen kaudimenaren eta prestazioen estalduraren alorrean, hipotesi teknikoak indartuz. Ildo berean, urtearen hasieran biziraupen taulak PERM/F2000P-etara egokitu ziren. Horien ezaugarri nagusia, belaunaldi-taula izatea da.

Aurtengo beste gertakari azpimarragarri bat, Bureau Veritasek emandako Kalitatearen Kudeaketa Sistemaren UNE-EN ISO 9001:2008 aintzatespena eta Euskalitek emandako Bikaintasunerako aurrerapenaren ondoriozko Konpromiso Diploma lortu ditugula da. Hobekuntza horien emaitzak izan dira, adibidez, artxibategi fisikoaren digitalizazioa eta informazio argiagoa, zabalagoa eta gardenagoa ematera bideraturiko sareen eta komunikabideen garapena.

## Análisis del ejercicio

La rentabilidad del año 2011 se ha destacado por su volatilidad, con una fuerte caída a partir de agosto y recuperación a finales de año. El resultado final ha sido del -1,98%. En Elkarkidetza expresamos la rentabilidad una vez deducidos los gastos de administración, que se aplica directamente a los derechos económicos de los/as socios/as.

Este año hemos cumplido el veinticinco aniversario desde su fundación. Ha sido un largo camino lleno de vicisitudes y obstáculos legales, que hemos ido venciendo uno a uno hasta consolidar un sistema solidario, sostenible y seguro.

Para celebrar este aniversario, la Entidad realizó el pasado mes de octubre una jornada técnica en la que expertos nacionales e internacionales debatieron sobre 'Las pensiones y el papel de la previsión social complementaria'. La primera conclusión que dejó este encuentro constituyó toda una declaración de principios: el mantenimiento del estado del bienestar debe ser una prioridad a través de la previsión social con los tres pilares: la seguridad social pública, la previsión social complementaria y los planes de pensiones individuales. Garantizar el mantenimiento de unas pensiones dignas constituye un mecanismo esencial para alcanzar el estado del bienestar que demanda una sociedad avanzada.

La Asamblea General de 31 de marzo de 2011 consideró conveniente adecuar el tipo de interés técnico a la rentabilidad esperada, reduciendo aquel en medio punto (del 4% al 3,5%) y, por otro lado, se aprobó la modificación de la mejora de las pensiones con una nueva definición recogida en el Reglamento. Este cambio supuso un avance en el ámbito de la solvencia y de la cobertura de las prestaciones, fortaleciendo las hipótesis técnicas. En la misma línea, con el inicio del año se actualizaron las tablas de supervivencia a las PERM/F2000P, cuya principal característica es que es una tabla generacional.

Otro hecho destacado este año es que hemos conseguido el reconocimiento al Sistema de Gestión de Calidad UNE-EN ISO 9001:2008, concedido por Bureau Veritas, y el Diploma de Compromiso por el avance hacia la Excelencia, cuya distinción procede de Euskalit. Resultados de estas mejoras han sido, por ejemplo, la digitalización del archivo físico y el desarrollo de las redes y los medios de comunicación tendentes a ofrecer una información más clara, profusa y transparente.

## Elkarkidetzaren errentagarritasuna eta batezbesteko urteko KPI
## Rentabilidad de Elkarkidetza e I.P.C. medios anuales




Azken urteetan merkatuen jarrera txarra izan bada ere, errentabilitateak inflazioa gainditzen du epe ertainera zein luzera.

A pesar del mal comportamiento de los mercados en los últimos años, la rentabilidad supera a la inflación en el medio y largo plazo.

## Taldearen bilakaera
## Evolución del colectivo




Ekitaldi honetan Elkarkidetzak 27.000 bazkideak gainditu ditu, eta horietatik 23.000 baino gehiago langile aktiboak eta ia 4.000 pentsiodunak izan ziren. Azken 10 urteetan pertsona aktiboen kopurua %30 hazi da eta pentsiodunena %53.

Elkarkidetza ha superado este ejercicio el número de 27.000 socios/as, de los cuales más de 23.000 fueron activos y casi 4.000 pensionistas. El incremento de los últimos 10 años ha sido del 30% de personas activas y del 53% de pensionistas.

## Ondarearen bilakaera
## Evolución del patrimonio




Azken ekitaldian ondareak gora egin du eta 2,12 aldiz biderkatu da 2001etik, ekarpenen eta errentagarritasunaren baturaren ondorioz, eta prestazioak eta bestelako ordainketak kenduz.

El patrimonio ha crecido el último ejercicio y se ha multiplicado 2,12 veces desde 2001, como resultado de la suma de aportaciones y rentabilidad y deduciendo las prestaciones y otros abonos.

## Ekarpenak eta prestazioak
## Aportaciones y prestaciones




2001-2011 epealdian ekarpenek bider 2,35 egin dute, eta prestazioek bider 1,87.

En el periodo 2001-2011 las aportaciones se han multiplicado por 2,35 veces y las prestaciones por 1,87.

Taldearen bilakaera
Evolución del colectivo

| | Mila euro<br>Miles de euros | Kop.<br>Número |
|---|---|---|
| Derrigorrezko erretiroa<br>Jubilación forzosa | 8.506 | 1.474 |
| Borondatezko erretiroa<br>Jubilación voluntaria | 5.157 | 856 |
| Ezintasun erabatekoa<br>Invalidez absoluta | 1.885 | 425 |
| Ezintasun osoa<br>Invalidez total | 1.839 | 509 |
| Alarguntasuna<br>Viudedad | 1.924 | 973 |
| Zurztasuna<br>Orfandad | 159 | 69 |
| Bestelakoak<br>Otros | 623 | 30 |
| Guztira<br>Total | 20.094 | 4.336 |

Pentsiodunen taldea (Pertsona kopuruaren gaineko %)
Colectivo de pensionistas (% sobre número de personas)




Ekitaldi honetan ordaindu diren prestazioak, erreskateak, errenboltsoak eta transferentziak kanpo utziz, 20 milioi eurokoak izan dira, %9,86ko hazkundea erakutsi dute, 4.336 onuradunek osatutako taldeari zuzendurik. Erretiratzeen ondoriozko ordainketak %68 dira, ezintasunaren ondoriozkoak %18,53koak eta Alarguntasun/Zurztasunekoak %10,37koak.

Las prestaciones pagadas en este ejercicio, excluyendo rescates, reembolsos y transferencias, han sido de 20 millones de euros, con un incremento del 9,86% para un colectivo de 4.336 beneficiarios. Los pagos por Jubilación suponen el 68%, la Invalidez el 18,53% y la Viudedad/Orfandad el 10,37%.

2012 ekarpenak
Aportaciones 2012

Ekarpenak, langileari dagokion Sailkapen Taldearen arabera (A1, A2, C1, C2) finkatzen dira, eta 2012rako honako hauek dira:

Las aportaciones se fijan en función del Grupo de Clasificación que corresponda al empleado (A1,A2,C1,C2) y para el año 2012 son las siguientes:

**2012 Ekarpenak Eurotan (%6)**
**Aportaciones en Euros 2012 (6%)**

| Taldea<br>Grupo | Oinarriak<br>Bases | Langilea<br>Empleado | Erakundea<br>Institución | Guztira<br>Total |
|---|---|---|---|---|
| A1 | 48.211,33 | 103,31 | 103,31 | 206,62 |
| A2 | 39.363,33 | 84,35 | 84,35 | 168,70 |
| C1 | 32.293,33 | 69,20 | 69,20 | 138,40 |
| C2 | 26.992,00 | 57,84 | 57,84 | 115,68 |

**2012 Ekarpenak Eurotan (%7)**
**Aportaciones en Euros 2012 (7%)**

| Taldea<br>Grupo | Oinarriak<br>Bases | Langilea<br>Empleado | Erakundea<br>Institución | Guztira<br>Total |
|---|---|---|---|---|
| A1 | 48.211,33 | 120,53 | 120,53 | 241,06 |
| A2 | 39.363,33 | 98,41 | 98,41 | 196,82 |
| C1 | 32.293,33 | 80,73 | 80,73 | 161,46 |
| C2 | 26.992,00 | 67,48 | 67,48 | 134,96 |

Urtero 14 kuota ordaintzen dira (12 hilabeteak eta ekaineko eta abenduko gehigarriak). Ordainketa horiek nominako erretentzio bitartez egiten dira. Kopuru horietatik %90 Erretirorako aurrezpenera bideratzen da, eta %10 arrisku prestazioetara (Ezintasuna eta Heriotza).

Anualmente se abonan 14 cuotas (las 12 mensualidades y las adicionales de junio y diciembre). Estas se realizan a través de la retención en nómina. De estas cantidades, el 90% se destina al ahorro para la Jubilación y el 10% a las prestaciones de riesgo (Incapacidad y Fallecimiento).

| AKTIBOA ACTIVO | 2011 |
| --- | --- |
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk Efectivo y otros activos líquidos equivalentes | 25.223 |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza aktiboak Activos financieros mantenidos para negociar | 218.867 |
| Galeretan eta irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioa duten beste finantza aktibo batzuk<br>Otros activos financieros a valor razonable con cambios en pérdidas y ganancias | 203.594 |
| Maileguak eta kobratu beharreko partidak Prestamos y partida a cobrar | 52.066 |
| Mugaegunera arte eutsitako inbertsioak Inversiones mantenidas hasta el vencimiento | 189.255 |
| Ibilgetu materiala eta inbertsioak higiezinetan Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias | 24.170 |
| Partaidetzak elkarteko erakundeetan eta kideetan Participaciones en entidades del grupo y asociadas | 35.102 |
| **Total activo Guztira aktiboa** | **748.227** |

| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA PASIVO Y PATRIMONIO NETO | 2011 |
| --- | --- |
| **Pasiboa Pasivo** | |
| Negoziatzeko eutsi diren finantza pasiboak Pasivos financieros mantenidos para negociar | 923 |
| Debituak eta ordaindu beharreko partidak Débitos y partidas a pagar | 328 |
| Zuzkidura teknikoak Provisiones técnicas | 724.585 |
| Zuzkidura ez teknikoak Provisiones no técnicas | 1.721 |
| **Pasiboa Guztira Total Pasivo** | **727.557** |
| **Ondare Garbia Patrimonio Neto** | |
| Funts propioak Fondos propios | 29.736 |
| Ekitaldiko emaitza Resultado del ejercicio | -9.016 |
| **Ondare Garbia Guztira Total Patrimonio Neto** | **20.720** |
| **Pasiboa eta Ondare Garbia Guztira Total Pasivo y Patrimonio Neto** | **748.277** |

| EMAITZEN KONTUA CUENTA DE RESULTADOS | |
| --- | --- |
| Ekitaldiari Inputaturiko kuotak, Berraseguruko garbiak Cuotas Imputadas al Ejercicio, Netas de Reaseguro | 49.420 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen sarrerak Ingresos del inmovilizado material y de las inversiones | 21.180 |
| Beste sarrera tekniko batzuk Otros Ingresos Técnicos | 199 |
| Ekitaldiko prestazioak, Berraseguruko garbiak Prestaciones del Ejercicio, Neta de Reaseguro | -22.326 |
| Berraseguruko Beste Zuzkidura Tekniko Garbien aldaketa Variación de Otras Provisiones Técnicas Netas de Reaseguro | -22.978 |
| Ustiapen gastu garbiak Gastos de Explotación Netos | -2.493 |
| Ibilgetu materialaren eta inbertsioen gastuak Gastos del inmovilizado material y de las inversiones | -34.660 |
| Ustiapen emaitzak %-1,98ko errentagarritasuna Resultados de explotación Rentabilidad -1,98% | -14.658 |
| | |
| Zuzkidura aktuarialerako ekitaldiko hornidura Dotación ejercicio provisión actuarial | -5.632 |
| Definituriko ekarpen zuzkidurako ekitaldiko hornidura Dotación ejercicio provisión aportación definida | 11.274 |
| Ekitaldiko emaitza Resultado del ejercicio | -9.016 |

| ESTALDURA TASA, EKITALDIKO SALDO-BANAKETAREN ONDOREN<br>TASA DE COBERTURA DESPUÉS DE LA DISTRIBUCIÓN DEL SALDO DEL EJERCICIO | 2011 |
| --- | --- |
| Mutuako funtsa Fondo Mutual | 9.015 |
| Erreserbak eta beste hornidura tekniko batzuk Reservas y otras provisiones técnicas | 11.706 |
| | 20.721 |
| | |
| Pasiboen hornidura teknikoak Provisiones técnicas de pasivos | 147.661 |
| Estaldura Cobertura | 14,03% |
| Eskatzen den legezko gutxiengoaren gainekoa Exceso sobre el mínimo legal exigido | 10,03% |

## Kontu-ikuskaritzako txostena • Informe de auditoría

pwc

### INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES

A la Asamblea General de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria

Hemos auditado las cuentas anuales de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria que comprenden el balance al 31 de diciembre de 2011, la cuenta de pérdidas y ganancias, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de flujos de efectivo y la memoria correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha. La Junta de Gobierno es responsable de la formulación de las cuentas anuales de la Entidad, de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la Entidad (que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las citadas cuentas anuales en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, que requiere el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales y la evaluación de si su presentación, los principios y criterios contables utilizados y las estimaciones realizadas, están de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación.

En nuestra opinión, las cuentas anuales del ejercicio 2011 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de Elkarkidetza, Entidad de Previsión Social Voluntaria al 31 de diciembre de 2011, así como de los resultados de sus operaciones y de sus flujos de efectivo correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

El informe de gestión adjunto del ejercicio 2011 contiene las explicaciones que la Junta de Gobierno considera oportunas sobre la situación de la Entidad, la evolución de sus negocios y sobre otros asuntos y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene el citado informe de gestión concuerda con la de las cuentas anuales del ejercicio 2011. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación del informe de gestión con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.

José Antonio Simón
Socio - Auditor de Cuentas

5 de marzo de 2012

*PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L., C/ Eduardo Dato, 12, 01005 Vitoria, España*
*Tel.: +34 945 151 050 / +34 902 021 111, Fax: +34 945 130 198, www.pwc.es*

R. M. Madrid, hoja 87.250-1, folio 75, tomo 9.267, libro 8.054, sección 3ª
Inscrita en el R.O.A.C. con el número S0242 - CIF: B-79 031290

# Batzar Nagusiak hartutako erabakiak
# Acuerdos tomados por la Asamblea General

Erakundeko Gobernu Organoek, Ohiko eta ezohiko Batzar Nagusiaren eta ezohiko Gobernu Batzordearen saioak burutu zituzten joan den martxoaren 22an, Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, honako akordio hauek hartu ziren, gehiengo osoz:

### Ohiko Batzar Nagusia:

1. Urteko Kontuen Onarpena, 2011ko ekitaldiari dagokion Kudeaketa Txostena eta ekitaldiko emaitzaren aplikazioa. Txosten honetan laburbiltzen dira.
2. Ondarearen gaineko administrazio gastuen ehunekoaren onarpena 2012ko ekitaldirako. Kudeaketa gastuen 0,34ko ehunekoarekin eta finantza gastuen 0,09ko ehunekoarekin jarraituko da.
3. 2011. urtean beraien karguaz jabetu ziren Gobernu Batzordeko ordezkarien izendapenaren berrespena.
4. PricewaterhouseCoopers kontu auditore izendatzea 2012ko ekitaldirako.

### Ezohiko Batzar Nagusia:

1. Batzarrak, Gobernu Batzorde berriko hamasei kideak izendatu zituen bere ordezkarien artean. Kideak honela banatu ziren:
    - > Zortzi mahaikide erakunde publikoen ordezkari izango dira. Horiek, aldi berean, honela banatu ziren: mahaikide bat Euskadiko Foru Aldundi bakoitzeko, Euskadiko Udalerrien Erakundeko (EUDEL) lau mahaikide eta gainerako erakundeetatik mahaikide bat.
    - > Bazkideak ordezkatuko dituzten zortzi mahaikide, Batzar Nagusian bazkide osoen ordezkarien proportzionaltasunaren arabera.

### Ezohiko Gobernu Batzordea

1. Presidente (Karmelo Sainz de la Maza), Presidenteorde (Amaia Aldasoro) eta Idazkari (Oihan Ostolaza) karguen izendapena. Batzordeko gainerako kideak mahaikide kargua izango dute.

Los Órganos de Gobierno de la Entidad celebraron el pasado 22 de marzo, en el Palacio Euskalduna de Bilbao, las sesiones de la Asamblea General ordinaria y extraordinaria y la Junta de Gobierno extraordinaria, donde se tomaron por mayoría absoluta los siguientes acuerdos:

### Asamblea General ordinaria:

1. Aprobación de las Cuentas Anuales, Informe de Gestión correspondiente al ejercicio 2011 y aplicación del resultado del ejercicio, que se resumen en el presente informe.
2. Aprobación del porcentaje de gastos de administración sobre el patrimonio para el ejercicio 2012, donde se mantiene el 0,34% de gastos de gestión y un 0,09% para gastos financieros.
3. Ratificación del nombramiento de los representantes de la Junta de Gobierno que tomaron posesión a lo largo del año 2011.
4. Designación como auditores de cuentas a PricewaterhouseCoopers para el ejercicio 2012.

### Asamblea General extraordinaria:

1. La Asamblea designo a los dieciséis miembros de la nueva Junta de Gobierno entre sus representantes, distribuidos de la siguiente manera:
    - > Ocho vocales de los representantes de las instituciones distribuidos a su vez por un/a vocal por cada una de las Diputaciones Forales Vascas, cuatro vocales representantes de la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL) y un/a vocal representante del resto de colectivos.
    - > Ocho vocales que representan a los/as socios/as según la proporcionalidad de los/as representantes de los/as socios/as de número en la Asamblea General.

### Junta de Gobierno extraordinaria

1. Nombramiento de los cargos de Presidente (Karmelo Sainz de la Maza), Vicepresidenta (Amaia Aldasoro) y Secretario (Oihan Ostolaza), ostentando el resto de miembros de la Junta de Gobierno el cargo de vocal.

**ARABA**
Ramón y Cajal, 7 y 9
01007 Vitoria-Gasteiz
T. 945 14 11 41
F. 945 13 63 45

**BIZKAIA**
Gardoqui, 2, bajo
48008 Bilbao
T. 94 415 55 78
F. 94 479 10 22

**GIPUZKOA**
Mendeurren Plaza, 6 behea
Plaza Centenario, 6 bajo
20006 Donostia-San Sebastián
T. 943 43 02 56
F. 943 43 02 57


25 urte años
elkarkidetza®
pentsioak

ISO 9001
BUREAU VERITAS
Certification